

ELIZA

OIJAINKO!

Denpora asko ez dala, Juan Pablo II.ak Espanako sinesgabekeria salatu eban. Ori dala-ta, zenbat garrasi eta istillu gure komunikabideetan! Madrilgo ministruak be ezin geldi egon eta dantzan jarri ziran. Zapatero jaunaren kukurrukuaren oiartzuna entzun ez dabenik, ez da egongo inguruan. «Gobernariak, 'Jaungoikoa ez balego bezela' gobernau bear dabe erria». Auxe izan zan Zapateroren kukurruku sonatua.

- Gazte eziketari ari garanok, olako pasadizuak be ibiltzen ditugu geure asteroko batzarretan. Orixe egin neban aurreko astean. Kontau baneban kontau neban Zapateroren kukurrukua. Ortik sortu zan gure bariku iluntzeko eztabaidea. Eztabaidea bizia gainera. An ezan geratu inor bere azkenengo berbea esan barik. Ezta entzun barik ere.

Guztion belarriak tente ipini euskun orretariko frase bat auxe izan zan:

-Ura Jaungoikoa baino preminazkoagoa dogu. Urik barik ezin gara bizi. Bai, oster, Jaungoiko barik. Ainbat dira munduan Jaungoikuagan sinisten ez dabenak eta bizi dira.

Amazazpi urteko baten berbak dira oneek. Bat baino geiago geratu zan ao-zabalik. Baten batek laster agertu eban bere adostasuna. Ta ni isilik nengoala ikusirik edo, non dinostan oso arro:

-Ez da egia ala?

-Misterio miresgarri baten aurrean gagoz -asi nintzan- eta errezagoa da txinurri batentzat japoniarren konputagaillurik modernuena ulertzea, guk Jaungoikuaren misterioaren izpitxo bat ulertzea baino.

-Bai! Zu beti bardin! Ez daustazu erantzun nire itaunari!

-Gizon basati batek -jarri neuntson esaten- bere egurrezko Jaungoikuagan sinestuteari izten dautsonian, orrek ez dau esan nai Jaungoikorik ez dagoanik, egiatzko Jaungoikua egurrezkoa ez dala baino.

Itzelezko eztabaidea biztu zan. An ibilli ginan gauzak argitu nairik. Ordu bi ondoren, gauzak argitu bearrean, iluntzen joiazan. Alkar iruntsi baino lenago amaitu genduan barikuko batzarra ta urrengo astean jarraitzeko asmotan. Bart aretan, baten baino geiagotan bururatu jatan San Agustinen pentsamentu au: "Egia, eztabaidaren bidez aurkitzen da, baina inoiz ere ez da eztabaida billatu bear egiaren lepotik».~Orixe pasau zan gure batzarrean. Eztabaidea nagusitu, egiaren lepotik. Arrokeriak gure asmo onenak be, ondatu egiten ditu.

«Egiaren billaketan, leen urratsa apaltasuna da. Bigarrena, apaltasuna. Irugarrena, apaltasuna. Eta azkenengoa, apaltasuna-. Ez, ezebillan erratuta Hiponako jakintsua.

Gauza guztleii arnasea

Zapatero ministruak egindako kukurrukua ez da atzo goizekua. Ezta berea be. Hugo Grozioren kukurrukua dogu berau. 1583-1645. urteetan bizi izan zan holandar lege gizon au. Nik ez dakit Zapatero jaunak Jaungoikuagan sinistuten daben ala

ez, baina Hugo Grozio fededun aundiko gizona zan. Berarentzat, Jaungoikua ukatzea baino kirtenkeri zentzunbakoagorik ezegoan

Hugo Groziok, baekian ondo baino obeto, Jaungoikua gauza guztien kreatzaillea danez, gauza guztien erraietan ari da, gauza bakotxari bere izatea eta arnasea emoten. Naizta Jaungoikuaren kontzientziarik izan ez, pertsona guztien barnean ari da lanean Jaungoikuaren arnasea. Agintariak pertsoneri dagokiozan legekin gobernatzan badabez euren erriak, naizta Jaungoikuaren kontzientziarik izan ez, azken baten Jaungoikuaren legetan diardue gobernatzan. Orixe nai eban esan Hugo Groziok bere frase famatu ori erabilliaz.

Kristau kontzientzi doaina daukonak, ez dauko orretan dudarik. Eleizaren historian asiera-asieratik agertzen da argi ta garbi. Atenasen Are opago erdian, onan berba egin eban Paulo Apostoluak: «Atenastarrok, oso jainkozale ikusten zaituet. Or zear nenbillela, zuen jainko-irudiak ikusten, altara bat aurkitu dot berba oneekaz: 'Jainko ezezagunari'. Ara, ba; zuek ezagutu barik gurtzen dozuen Orren barri emotera natortzue, lurbira eta lurrean diran gauza guztiak egin dituan Jaungoikuaren barri ernotera. Zeru-lurren Jauna da Bera, ez da eskuz egindako etxeetan bizi, ez dabe gizonen eskuak zaintzen, ezeren bearrizanak ez daukalako gauza guztiei bizia, arnasea eta gainerako guztia emoten dautsenak. Berak atara ditu lur osoan bizi diran gizon guztiak, noiz eta non bizi bear daben erabagiz. Guztiak bere billa ibili daitezala gura dau, ea itsumustuka beintzat aurkitzen daben, naiz eta bera gutariko bakotxagandik urrun ez egon. Izan ere, Beragan dogu bizi izatea, ibiltea eta izatea; eta zuen olerkari batzuek esan dabenez: 'Aren jatorrikoak bagara', ez dogu izan bear, jaungoikotasuna urre, zidar edo arriaren antzekoa danik, au da, gizonaren eskuz eta buruz landua».

Kontzientzi au ez da inoiz ere Eleiz Katolikuan galdu. Bere santuak ez bakarrik gogoratu, baita sakon bizi be, Jaungoikuaren presentzi maitekorra izadiaren erraietan. «Jaungoikua gure barne-

muina bera baifio barneago daukagu» oso xeblebre biurtuko da kristau kontzientzian. Agustinen beste esaldi au be «Zuretzat egin gaituzu, Jauna, eta ez dau onik gure biotzak Zugan atsedena artzen ez dauan artean», oso ezaguna biurtuko da sermolarien aotan.

Baliteke z/apatero rainistruak ez San Pauloren ez San Agustinen pentsamentu oneek onartzea. «Jaungoikua balego bezela» gobernauko balebe agintariak gure erriak obeto ibilliko litzakez. Or geratzen da beste pregunta bat be: Erri agintariak gobernau leike erria, fededunak existitzen ez balira lez?

Milla eder-jarioz!

Inon zaindu eta bizi izan bada samurkiro Jaungoikuaren presentzia izadiaren eta gizadiaren barnean, Karmengo Ordena dogu. Bere izar batzuk aipatzea baifio ez daukagu: Santa Teresa, San Juan Kurutzekoa, Santa Teresita, Isabel Irutasuna, Edith Stein edo egunotan altaretara jaso izango dan Rafael Kalinows.ki deuna.

«Lapiko artean dabil Jaungoikua» d-ino Teresak. Esaera errikoi onetan, Teresaren pozgarrizko esperientzi sakon bat somatzen da. Jaungoikuaren presentzia eskutua eta leuna, ain zuzen. Bide orretara deika darabilgu Avilako santa humoretsua bere idazlanetan eta bizitzan.

Karmengo beste izar disdiratsu bat, Juan Kurutzekoa dogu. Bere eriotzako laugarren mendeurrena beteten da abenduaren amalauan. Bere olerki finenak eta pentsamentu beinenak euskeratuta daukaguz. Eskertzekoa da, esaterako, Julen Urkizarren eta Luis Baraiazarra-ren liburuska dotore eta atsegingarria, (*J. URKIZA - L. BARAIAZARRA, Gurutzeko Joan Donea, 1591 - 1991-Artea-Bizitza-Gogoetak. Larrea-Zornotza 1990, 112 orr.*) Oso osorik lortu dabe euskera-zale aundi bi oneek euren asmo ederra: «Liburutxo hau atsegina izatea nahi genuke, ederraren

gozoa dastatzeko, gogoeta sakonak hausnartzeko, nork bere baitan dituen maitasun eta bake ametsak, samurtasun eta bizi gogoia, askatasun eta jainko irrikak esnatzeko lagungarri izatea».

Ze ederto bizi eta azaltzen dauskun Juan Kurutzekuak Jaungoikuaren presentzi goxua gauza guztien barnean. Ona emen pentsamentu zoragarri batzuk J. Urkizaren eta L. Baraiazarraren liburuxkatik artuta:

-«Jainkoaren maitasunaren irudia grabaturik dago pertsonaren bihotzean»

-«Jainkoaren begiradak alaitasunez janzen ditu mundua eta ortzean diren guztiak».

-«Jainkoa eguzkia bezala dago gizakien gain, hauei etengabe bere arnasea komunikatzen».

-«Arimaren barne-muinean, ezkutu eta isil, leunki eta maiteki Jainkoa bizi da».

-«Fedearen egiak marrazki batetan bezala taiuturik daude ariman, ez guztiz zehazturik».

Bere Maite Kantan au dinosku:

«Milla eder-jarioz  
arin igaro zan ibar otatik,  
ta begiratu soillez,  
bere itxuraz bakarrik,  
guztia itxi euskun eder jantzirik».

Jaiikoaren begiradak

«Jainkoa arimaren barne-muinetan dago izatez eta egotez». Juan Kurutzekoak barru-barrutik bizi dau esperientzi Hlluragarri au. Badaki baita beste era askotara be Jaungoikuaren presentzia sentitzen. Guztion barnean daukagu Jaungoikia. Naiz sinistu Beragan naiz\* ez sinistu. Ze ederto azaltzen dauskuzan Juan Kurutzekuak Jaungoikuaren beste motako presentzi pertsonalak. Ona emen Jaungoikua pertsonengan egoteko erak: «Pertsona

batzuengan bakarrik dago, besteengan ez; hauengan atseginez, haiengan atsekabez; batzuengan bere etxean bezala, agintzen eta guztia zuzentzen, besteengan inoren etxean bezala, agintzen eta ezer egiten uzten ez diotela».

Jaungoikua fedez eta maitasunez onartzean, bere presentzia gudan beste ezin esaneko era baten daukagu: <Jainkoaren begiradak pertsona edertu, aberastu eta argitu egiten du». -Jainkoak pertsonari lehen aldiz begiratu ondoren, bigarren aldiz eta gehiagotan ere begira diezaioke, graziaz beteago eta ederrago egineZ". «Jainkoak oso-osoa bat egiten du maite duenarekin\*. «Amak haur txikiari bezela, xerak eta laztanak egiten dizkio Jainkoak gizakiari».

Onela bizi dau Jaungoikuaren presentzia Fontiverosko olerkari santuak. Jaungoikuaz alkar maitasun pertsonalean bizi izatera deika daukagu. «Gizakiak Jainkoaren bila badihardu, askoz ere gartsuago dihardu onek haren bila». Ta gizona eltzen da bere nortasun betera, Jaungoikua fedez eta graziz maitekiro eta pertsonalki bizitzean.

Fede eziketari diardugunok, jakin badakigu, Jaungoikua eta beste gure baliorik ederrenak ezin daiegunzala bandeja edo azpil baten inori serbidu. Azken baten, baxotxak egin bear dau bere bizitzako aposturik inportanteena: Jaungoikua maitasunez onartu edo ukatu. Kristau batek badaki, gizadiaren muin-muinetan izatez Jaungoikua or dagola beti, ta ori ezin da inondik inora birrindu. Baina beste era batera nai dau Jaungoikuak gugaz bizi. «Bere etxean bezela» dinosku Karmengo maisuak. Orretarako bearrezkoa da, Jaungoikua maitasunez eta apaltasunez pertsonalki biotzean onartzea. Ta onela apostatzen dabenak, ez dauko ezer galtzeko arriskurik. Bai, ostera, dan dana irabazteko aukera. Arrazoizkoagoa da beti be, Jaungoikuagan sinistutea, ez sinistutea baifio.

Dastatu, bestela, Juan Kurutzekuaren esperientzi ain sakona eta ederra:

«Nireak dira zeruak eta nirea lurra;  
nireak gizakiak, bai zintzoak eta bai pekatariak  
Nireak aingeruak,  
Jainkoaren Ama eta izaki guztiak nireak dira,  
Jainkoa bera ere neurea dut eta neuretzat,  
Kristo neurea bait dut eta dena neuretzatk

-Ura ala Jaungoikua ete da preminazkoagoa?

Juan Kurutzekuak ezaban inoiz olako itaunik egingo. Bere erantzuna baliteke onelakoa izatea: «Oker Iarria litzateke Jainkoaren ondasunak Jainkoa bera baino maiteago izatea».

Datorren barikuko gazte batzarrean, aleginduko naz barriro be, pentsamentu oneek argitzen.... Ori bai, Kristoren kontsejua kontuan artuta: «Ez bota arri-bitxirik txarriei, ankapean erabili ez dagiezan» (Mt. 7,6)

*A. Olea*